

Agirre'tar

Deun Martin

BERGARA'KO SEME

ETA

Japon'go Genziñopa'ren


BIZITZA.



Tolosa'n: E. Lopez'enean

1918.

38





H-84573 / f-92588
Agirre'tar Deun Martin

h-v
40238

BERGARA'KO SEME

ETA

Japan'go Lenziñopa'ren

BIZITZA.



Tolosa'n: E. Lopez'enean

1918.

OBISPADO
DE
VITORIA.

IMPRIMATUR

Victoriae 11 Julii 1917.

Gobernador 'ecclesiástico S. p.

Dr. Joseph Leontius O. de Zárate.

Idaztitxo onen zegafia.


Agirre'tar Martiñ deunaren bizitz arrigarria, Alkala'tar Marka ana, pantzekar ospegarri ta jakintsuak emezortzigarren eunkian idatzi ta argitaldua, lenengo aldiz irakurri nuanetik, zarritan egon naiz oldozten (pentzatzan) nola litekean ez geyago leyatu edo alegindutzia, donokian seme deun zĩnopatu bat daukan erria, eta batezere bere Udal edo Ayuntamentuari ez bururatzea, bertako ikastoletan umetandik jakin erazoteko geurè anai doatsuaren bizitz jarraigarrìa, naizta laburkiro idatzita, Deunaren guraso eta ondorengoan ele edo izkuntzara biurtuta.


Arrezkero (juan dan urtian) erri ontako Irukoitz Deunako lekaimeak, eurak oiduten maitagarrìtasunaz bialduta, irakurri nuan Nenclares'tar Eustaki Mirenak, Japon'go ogetasei lenziñopaen bizitz laburrak idatzia dakarren idaztitxo bat; eta alaiturik nere erritar maiteak pozik ikusiko duten itxaropenaz, bururatu eta erabaki nuan euzkeraldutzia; ipiñirik nere zuzenbide guziak (zoritxarrez mugatuak badira ere) gure Deun aberkidearen opari ta aintzarako.

Opafbidea.

Bergara'ko ikastoletan zabiltzaten umetxo maitiak, agur. Zuengana nator zeueri eskeintzera idaztitxo au, irakurriaz ikasten dezutenian zuen ta nere Anai Deunaren bizitz arrigarria, izan dediñ zuentzat jarraibiderik egokien ta aurrenena; eta baldin era ontara geitutzen ba-dira bera bene-benetan maitatuko duenak, atsegin izango du zueri biotzetik nai dizuten onek.

8'tar 8.





BERGARA'KO

Agirre'tar Martin Deuna'ren bisitza.

Milla bosteun ta irurogeita zazpi-garren urtean, Bergara'ko Angua mendiaren ostean zegoan bassetxe bat, *Zabaleta-txikia* zeritzona: bertan bizi ziran Kepa eta Mariñe senar-emasteak, iya iru urte zituan semetxo batekin. Kepa zan Agirre'tarren oñetxe eta sendi jatorri aundiko semea. Onen jayotetxe ospe aundiko au zegoan eta dago, Aumategi (beste oñetxe jauregitu bat) deitzen zayonaren eta Martin Turonense deunaren izeneko basatxaunaren artean.

Esan degun urteko Iralla'ren amaikako goizaldean, zorioneko Mariñe'k eman zuan argitara aur mutilki eder bat, eta bertatik, guziak pozez beterik, asi ziran Ugutz deunarako bear ziran gertaerak egiten.

Onela bada, egun artako arrats-beran, Bergara'ko Kepa Deunaren Ertxadona, erriko notin uargarrienez betea zegoan, Ugutz deuna artu bear zuan umetxo baten senide eta aitama bitxien etorrerari itxodoten.

Jualtza alai baten bitartez iragarri zioten urreratzen zala lagunoztea, eta sendi aundizki bateko urtume bat sartu bear zala beriala Kistar-batzaren altzoan.

Ertxadonako txadonzai, jaupasein eta beste menpekoak leyatsu zebiltzan egipen deun artako bear ziran gauzak gertatzen.

Onetan, irten ziran guziak txadon-atarira eta arkitu ziran aitama bitxiekin; berak ziran Abad Gantxaegi'tar Ander eta Joaniz-Albisua'tar Katarriñe: onek zeraman besoetan ume mardul bat, Agirre'tar Kepa eta Arijola'tar Mariñe zoruntzuen semea.

Berealaxe, Solis zeritzan Txaunburu jaunak, ugutzatu zuan, eta jarraiki aurregondu ziran guziak sarturik txaungelara, idatzi zan ugutzingia.

¡Etzuten usteko noski an batzaldu ziradenak, agerkai bakandi ura izan bear zala, urte gutxi barru, Doibatzaren notin goitikoena ain arreta artukitzakin aztertua!

Ugutzingi onen beretitza Bergara'ko Deun Kepa txunosiko ugutz-idaztietan agertzen da erderaz, emen euzkeralduta jartzen deguna, eta dio:

"Milla bosteun ta irurogeita zazpi-garren urteko Irallaren egun amaikan izanduzan ugutzatua Martin, Agirre'tar Kepa eta Arijola'tar Mariñe'ren semia. Aitabitxia izan zan Abad-Gantxaegi'tar Ander, eta Amabitxia Joaniz-Albisua'tar Katarriñe. = Solis."

Aitaldeko aitona ta amona, aurrez dijoan agerkayan izendatutzen eztiranak, izan ziran Agirre'tar Ernanda eta Aizpuru'tar Katariñe; ta amaaldekoak Arijola'tar Jon eta Uriburu'tar Mariñe.

Aurtxo samur ura, une artatik, sartu zan Doibatzairen magalean *Agirre Arijola'tar Martiñ'en izenaz.*

Bigarren aldizko jualtza alaigarriak, eta txadonataritik Agirre'ren etxetik etorri zan lagunozteak karramarro bota zituzten txindi mordoskak, iragarri zion ikusgarri artara etorri zan ozte guziari bukatu zala egipen aundigo ura, eta aldendu zan bakoitza bere etxera, araturzen zirala aitama bitxiak, senide ta adizkide kutunenak Kepa jaunaren etxera bere emazte aurgituari pozerazkida ematera.

Agirre'tar Kepa eta senidien oiezko poza Martiñ'en etorrerakin, etzan baña etxasemea itxodoten zeudelako, bada aurrez esan degun letz, lenago jayo zitzayen beste bat sendo ta mardul bizi zana. Guztien poza izan bear zuan goiargiak ematen ziena; berak atzalpenik eman gabe sendi pozkartu ari, esaten zion zenbat andizuren eta ospe urbilduko zituan ume jayoberri arek, Agirre'tarrak lenagotik zituzten ikurdieri.

Andere Mariñe'ren seingintza batetik bestera bitartetu ziran, gutxi gora bera, iru urte, emanik argitara lenengo semea, Jon zeritzona, oni jarraitu zion Martiñ'ek, eta oni Estepan, Mariñe ta Katariñe

Aurtzarotik gure Martiñ'ek erakutzi zuan iza-
kera gentzatsu ta eztitsua, agertzen zuala beti,
aur-jolasetan ere, apaldasunik aundiena, laga-
tzen ziela beti bere anai-arreba eta gañerako ume
lagunen eskapen ta eraspelai.

Batere gotiritz eta arrokeri gabe zintzura aun-
dia agertu zuan ikastarorako, ikaszaletasunari
alkarturik, arritutzen zituala Bergara'ko bere le-
nengo irakasleak, jakintzan urte gutxi buru gain-
tzeraño.

Bere jayoterrian, aurrerapen aundiarekin, ikasi
zuan latera, eta an ez izanik zer ikasi geyago,
gurasoak bialdu zuten, bere osabaren bitartez,
Alcálá de Henares deritzon goiturira edertiak eta
urtziztia (teologia) ikastera.

Bere adimen bizkorra, begirune bakar batekin
alkartua, bere oitura ondo iraziak eta bere izakera
maitekor eta adizkidetzalleatzaz egin zan txit las-
ter irakurlarien eta ikaslaunen ikaslari maitatuena.

Biotz maitetzuaz ordaindutzen zien gure Mar-
tiñ'ek oparotzen zioten onginayari; baña etzan
juaten ikasliekin beren jolas eta batzar alaietara:
bere gelan ere etzitan etartutzen, ez izanik ja-
kidiaren gañean itzalditutzeko.

Bere ibiltaldi egokidea "Gotzon" lekaidetxera
izaten zan, eta an igaroten zituan arratsaldeko
ordu batzuek Sebasten Ana atezañakin itzaldi
deunetan. Lekaide onekingo itzaldi onbidekorrak,
eta egunoroko Asis'tar Pantzezka Dopatzaren

semeak zeramaten gogarpenaz iratzarri zan Martiñ'en biotzean bertan sartzeko guraria.

Urtzi'ren deya, eta bere asmo gogaldu ta be-tuztetzuaz eta guztien bayetzakin, artu zuan Pan-tzezka deunaren janzkia amazapi urte ta zortzi illabete zituala, 1585'garren urteko Orrilla'ren amaseigarrenean, Auñon'eko "Sebasten Deuna" zeritzon lekaidetxean, Gabirel Aba lekaipuru zala.

Agirre'tar Martin gaztea izan zan ango bedo-kiñen eredia, eta baldin apaltasunean eta neke-tan bardintzen bazuten batzuek, ziurkiro, iñork etzuan gaindu. Lekaidabak etziran aspertzen Gu-zialdunari eskarrak ematen, Gopatz artako ur-tzideiaz zuzendu zualako gazte arrigarri au, bada etziran gogoratzen aiñ gazterik deuntasun ta ja-kintzako doaikiñak bildu zituanik Martiñ'egan diztiatutzen ziran bezela.

Bedoitera urtea bete zuanean, lekaidetu zan Gabirel Aba beraren eskuetan urrengo urteko Orrilla'ren amazzpian, egiten zituala, oitura zan opariaz, iru eskañitz biarrekuak zintzotasun be-girunekoaz; Dopatz artako ogetabost aginde zi-ñezkoak eta izengoitiaren arpena, autatutzen zuala ontarako "Igokunde"ko (de la Ascensión), eta andik aurrera deitzen zala izengoiti aundiko onekin.

Martin Aba'ren lekaidekundera agertzen zan ingia, berak izenbetua, bertiraun zan 41 urtean Auñon'go lekaretxean; baña 1627'garrenean le-

karetxean eldu zanean Japon'go ogetasei lenziñopaen zorundutz izparra, Urban Doipuru VIII'ak aitortua, lekaideak, pozarren, arrakatu zuten ingi bikaiñ ura, eta ipiñi zuten gorpuzkontzi eder baten. Andik urte batzuetara idaztian gelditzen zan utsunea betetzeko jarri zuten egiztapen au: *Nik, Meltxor Aba, Izkintzari eta "Sebasten Deuna" lekaretxe onetako Lekaipurua, diñot: Utsune onetatik kendu zan ingia, bigarren zenbakia, Deun Martin Igokundearen lekaidekundera ta berak izenpetua zalako, kendu zala emendik gorpuzkontzi baten jartzeko: gai onen atzalbena arkituko da idazti onen azkenean. Eta egi au orrela dalako, izenpetutzen det neurearekin, 1632'ko urtean Bagilla'ren 19 egunean.—Santa Maria'tar Meltxor, Ana.*

Gorpuzkontzia ipiñi zan lekaretxe onen txadonako txauño nagusian, ormako uskune baten, gure Deunaren gorpuosoko antzeza zegoan gainean, ikusten dala (1739'an) ikurritz bat miesaren buruan, margozkiaz egindakoa, eta dio onela: *"Martin Deuna, Japon'go lenziñopa, jayotzez Bergara'koa, ziñitz-egin zan lekaretxe onetan 1586'go Orrilla'ren 17'an."*

Lekaidetu zanetik bi urte barru bere otsandea zabaldu zan Pantzezka deunaren Lekaidian, eta Santa Maria'tar Jon, Ana lekaiderkabak nai izanik bere onduan eduki, deitu zion Madrid'eko "San Bernardino" zeritzon lekaretxetik. An izan

zan etartua lekaide guztien pozkidaz, eta laizter ikuskatu zuten onbidekor ta jakintzu bezela zeukan otsandea gitxiago zala jakintzu ta onbidekor zan baño.

Beste eskar bat, ala ere, onbidea ta jakinduria baño geyago gainditutzen zuana zan apaldasuna, iñork baidindu etzuana; bada azkenengo lekua, lan gogor ta urruingarriena, janari zatarrena, jancki zakarrena, ibillaldi lartsuena beti autatu zuan beretzat; eta arrandi gabe, ta otsandi txikiena gabe araturzen zan beti txarrenera.

Eldu zanean adin egokira eta Lekaidabak ikusirik goitasun aundienarekin betetzen zituala jauparitzeko bearkun guziak Santa Ana'tar Bartoloma Lekaiderkabak bialdu zituan agiriak, eta Martiñ'ek atsegin izan zuan lenbizi Jaupa deuna emateko 1592^{en} urtearen lenengoetan.

Arduragetu gabe ikastaroak, bada abetan ematen zituan ordu asko, bere bizikera egin zan betetziagoa jauparitasunaz menalduta ikusi zanetik.

Alde egiten zuala ludiko gauzetatik, zijuan gaindutzen donokarrara geruago ta geyago urreraturzen atsegingegian arakotuta zedukan bizitegira.

Bere gogo edo arima, bere gorputzetik iya jaregirik, esan leike-ze etzegola berakin; bada sarritan ikusi zan egoten zala orduetan oso geldi, begiak ortzeruntz jasota, bere gorputzak izatasunezko esaungairik agertu gabe. Zentuzte ta zorr-

era onek maizago ziran ondiaren aurrean jaupa deuna ematean. Rivadeneira'tar Martzelo anak dio eze, Josu-Jayokunde egun baten, jarri zituala kezka aundian jaupa entzuten zeudenak, bada jaupontzia jasotzian, bere gogoa jaso zuala donokiruntz, alako borondiaz eze, kordegetua bezela egon zala ordu ta erdian, bere aurpegi ta gorputzean ikararik ere oartutzen etzala.

Gorago aitatu degun Madrid'eko lekaretxean izandu zan irakurlari izendatua, bertako lekaidaba zan Santa Maria'tar Jon'ak, bada Aba onen izparrak onartzen ditugu egiztatuenak, zergatik iñork baño obeto Martiñ'en aurretiko egikera ta zerzelada guziak, au ainbeste ezagutu ta maitatu zualako ezagutu bear zituan.

Barrendutua zirudiela, diño ziñaldari onek, ikaslari berri aren jakintza. Iñork ez lenago ta ez arrezkero azaldu zuan irakastolan ainbesteko sakontasun ta goratasunik, ezta ere atera ikasle argitsuagorik.

Martiñ'ek jaupa eman baño sei illabete lenago, pantzekatarren España'ko lekaretxeak ikus-tatutzen ibilli zan Pilipinas, Txina eta Japon'go belgunóarien Ordezkari bat, lurralde ayetan kistar uskurtza zabaltzeko bear ziran lekaide izkintzariak autatutzen. Eta Martiñ'ek gurari gartsuena izanik izkindutzia menekio artan, eman zuan bere izena lenengo juan bear zutenen izen-lerrokadan agertu zediñ. Ezbiar batzuek luzatzen zu-

ten lekaidien itxañirtera, ta au etzan egiztatu 1592'ko Bagilla arte, au da, Martiñ'en lenbiziko jaupatik sei illabetera.

Egun batzuek Sevilla'ko "Pantzezka deuna" lekaretxean igarota, Sanlukar'en batzaldu zan belgundia osatutzen zuten lekaidiekin, eta alkar-turik itxasoratu ziran Nueva España zeritzon erri aldera. Zazpi illabeteen egon ziran lurrik ikusi gabe, zemuitutzen egundoko lazari ta nekeak: azkenengo illa, batezere, izan zan nekalarri ta estukorra ontzi-gizon eta lekaidientzat, izanik illak edo itoak guztitatik.

Zijoazen itxasontzia, izakera onekua bazan ere, urgiñak oztozta ildokatzen zituala, ikusi zan arratsalde baten jazartua ekaitz sumin batez, ikusten zutela guziak eldu zala beren azken ordua.

Leorretik itxaski gogor ta orrolatsu batek astindutzen zuan ontzi-aurrea, nekarazitzen zuala, eta atako zurrunbillo batek osoro zuaizgetu zuan, eziñ irozorik arren bultzadak ta gaindutzen zuten urezko mendiak.

Agintariaren txistua ixildu zan, endaitza utzi zan; batzuek belaunikaturik, bestetzuek goi-gañean etzanda, geyenak ontziaren alboei gogor eutzita, asnasa larriaz, donokira zuzentzen zuten beren minge ta azken otoitza.

Estuasun ikaragarri onetan zeudela itxasozi illurren oyek, entzun zan abots aldun bat menperatzen zituala aizerauntziaren orroe ta burrunbak.

Martin Igokunde, menpeturik Guzialdunaren naimenakin, atzealdeko gaztelura igota arrendu zienean guziei, berakin batera ortzaratu zezatela otoitzak, ekaitza otoizmenu zuan, eta indargetuaz bere garrazkeriak, odaiertza oskarbitu ta itxasoa otzandu zan.

Tresna eta lema gabe gelditu bazan ere ontzi ura, biurtu zan alatzez ogeitamarrenbat egunera, ainbeste illabete igarota gero Amerikarako irten zan itxatera bertara.

Sanlukar'en egon zan Martin oyan apaldatua egun askotan bere izaira burrukatzen zala gaxotasun galbidetsu baten aurka, ipintzen zuala erioztaren atarian; baña Guztiegilliaren bitartez, bere gaztetasun ta azpegi errutsuak menderaturik, biurtu zan bere zeregiñetan aritutzera.

Oaindik gaxondo zegoala aldatu zan Sevilla'ra emen bergaxotzen zala, baña egun gutxi barru jarri zan Cadiz'era juateko eran. Goituri onetan arretatu zan gaxoak zaintzen, ikastaroa eta nekabideari utzi gabe, berriz lekaide belgundariak itxasoratu ziran arte. Bidaldi onetan, egualdi txarrik gabe, lurreratu ziran Nueva España'n 1593'go Dagonilla'ren 19'an.

Alaz guztiz ere gure Martiñ'entzat etzan izan juakunde zorionezkoa, sukar izugarri batzuek sortu zitzayozkalako, baña uste etzana gertatu zan, bada lurralde ayetako eguraztiak ondo artu zuan, eta azte gitxiren buruan "Santa Barbara"

zeritzon lekaretxean zegola sendatu zan osoro, beraren barautze ta gorputzari ematen zion ildurari jarraitu arren.

“San Diego” zeritzon lekaiderkiko irakurlari autatu zuten, eta iriki zuan irakastola Txirubusko goituriko “Ama Neskutza’ren” lekaretxean. Bertan geyen gainditu zan ikaslea Blanco’tar Pantzezka ana izandu zan.

Bearrekoak izanik Manila’n txadonkizunerako uzkurtzaleak, Lekaiderkabak erabaki zuan ara bialtzea lekaide batzuek, eta onen artean gure erritar Martin eta bere ikasle begikoena.

1594’ko Orrilla’ren azkenetan eldu ziran ba Manila’ra, Josu’ren Paul ana pantzezkatarren Lekaipuru zala.

Bere izengoitiko jakintzak naigabetu zuan Martiñ, emen ere irakurlari edertiena ta gero urtiztia atzaldutzeko autatu zutelako, betetzen zituala eginbide abek betiko ditzirakin. Emen, nagusiak, eskura ekarri bear izan zuten, obenekean aurreregi juan etzedin, bada onen geitasunak ekarri zion gaxo sendakaitz bat.

1596’ko lenengoetan Geznari ta Ordezkari zarenaren eskariaz, Lekaiderkabak bialdu zituan Japon’era lau lekaide pantzezkatarrak Josu’ren Jeronima ana, San Antonio’tar Ander ana, Riva-deineira’tar Martzelo ana, eta ordezkari Rodriguez’tar Agustin ana.

Zeramaten bide-zear bitartean il zan bigarrena,

eta laugarrenari sortu zitzayon gaxo sendakaitz bat betiko ta osoro deuzetu zuana. Au ikusirik Ordezkariak jakiñian ipiñi zuan Lekaiderkaba, eta onek il zana eta deuseztu zana ordeztutzeko, erabaki zuan irten zezatela Japon'erako Martiñ'ek eta bere ikasle Blanco'tar Pantzezkak.

Zorabiatuak biak pozaren-pozaz, Lekaiderkabaren agindua entzutean, au goraltzen etziran aspertzen egiten zien eskarrakatik, iruditzen zitzaiela egun ayek eunte luziak, itxodon zuten opa bizi batekin itxasontziaren irtera, euren gogoak donokira igo bidean jarri bear zituan naidira edo portura berak eraman bear zitualako.

Eldu ziran bada gaizberri gabe Nangasaki'ra Josu'ren Jeronima anarekin, eta emen egun batzuek igarota aratu ziran Meako'ra, Lekaiderkabari menea agertzera.

Garai artan Kepa Batista anak erabaki zuan bere mendeko belgundea zabaldu eta Doibatza irasitzea Osaka'n.

Artarako autaturik Martin irten zan Kepa anakin eta bertako kistar batzuekin, eta euki zuan atsegin aundia bera izatea geyen lagundu zuana "Belen" lekaretxea gertatzen.

Erabakirik erri artako jainko-gezurrezkoen otseiñak pantzezkatarak arrapatzea, 1596'ko Abendua'ren zortziko gaberdian aurkeztu zan "Belen"go lekaretxean Osaka'ko agintari nagusiaren arduradun bat, eta eraturik etxe ura espe-

txetzat, espetxetu zituan bertako lau biztanleak. Beste ainbeste egin zuan Josulaunen batzako etxean zeuden irurekin.

Berialaxe Martiñ'ek jakin eraso zion jazopen au Kepa Batista'ri (au Meako'n zegoan) eta bertatik asi zan eskarrak ematen Jaunguzialdunari egiten zion mesedeakatik, jazorpen au bere kaltez laketutzen zuala, eta bere lagunena auzardiari eutzitzen, menpetu zitezen gogoz doskañira.

Lenengo egunetan ikertutzen zituen erriko kistarrak, ta baita ere beste zeagigurta berezituena ere. Guztiak alegindutzen ziran espetxetuak iges egin zezaten, bada artean erraz itzuri zezaketen, baña ayek ez biurkor egon ziran.

Onela astebete igarota, bai Meako'n eta bai Osaka'n, geitu zan areyoen gogorkeria, ta espetxetuak gelditu ziran bakidegeturik goiturikoe-kin, onela jarraitzen zutela Belen'goak Abenduaren ogeira arte.

Jon Pobre zeritzon pantzekatar Abak, azke zebillela errian, ezagun aundizki batzuen bidez iritxi zuan Martin eta bere espetxe lagunak jayaldu zezaten Jainko-Semearen Jayotza erriko kistar batzuen laguntzarekin.

Ogetasei-garrenean berriz gelditu ziran baki-degeturik, ta andik aurrera Jon Pobre'ri ere etzitzayon utzi espetxetu ayek ikustatutzen.

Ogetamarreko egun sentian aurkestu zan leka-retxean Jauriariaren otsein bat gudari goaita ba-

ten laguntzaz. Lotu zizkioten eskuak atzera ta eramane zituen zeira edo plazara, eta baita andik laster iru Josulaunak, ta beriala gudarozte ura jarri zan bidian, eramaten zituztela zazpi ziñopa ayek Meako'ra, emen guziak bildurik asi zedin Taikozama kaisarra'ren epaitza.

Batzaldurik, bada, Meako'n zegoan espetxean, atera zituzten guziak Ilbeltza'ren 3^{an} zeizabal batera ta ebaki ziozkaten bakoitzari ezkerreko belarriaren zati bat.

Biozberaturik begira zeudenak, baita gudariak ere, negarrari emanaz eta deadarka ospatzen zuten Uskurtz-kistarra, eskatzen zutela berentzat ere ogetalau ziñopa ayen anbateko zoriberdiña.

Beriala jarri zituzten irunaka zortzi burditan, bakoitza idi batek zeramala, ta onela erabillirik erri guztiaren aurrean, sartu zituzten espetxean, urrengo egunian asiera emateko ludiko beren azken bidaldiari.

Biyamoneko egun sentian, espetxetik aterata, batzuek zaldiz ta bestetzuek oñez, gudariz inguratuta, sartu ziraden Osaka'n arratsalde erdian.

Ordu gutxi lenago eldu zan erri artara Taikozama'k emandako onela zion epayaren idazkaya:

“Luzon'etik etorri ziran gizon abek bakalorde izenean eta Meako'n gelditurik kistarren legia zabaltzen, nik, juan diran urtietan estuki eragotzi nuana, agintzen det illak izan ditezela, beren le-

gian alde egin ziran japonarrekin batera, eta onela ogetalau abek Nangasaki'n izango dira gurutzetuak: eta berriz ere eragozten det lege ori; eta baldin norbaitek ausarki agindu au ausitzen badu, izan dedilla nekaldua bere jatorri guziakin. = Keitxo lenengo urtea, amaika'garren illargiaren amargarren egunian. = Bakaldun ikurra."

Epai au, ol batean idatzita, gudariak zebilkiten ziñopaen aurrian erriz-erri, Nangasaki'ra eldu ziran arte.

Aiñ zaurituak oñetatik ta oso elbarrituak gorputzak zeuzkatela, ezin jarraiturik, ezta zaldiz ere, eramaten zituzten geyenak otar aundietan sartuta.

Igaro zituzten erri guztietan utzitzen zuten oroimen iraunkorra, euren poz ta gorputzaren sendotasunaz, izan ziran gure Martin ta bere ikaslari Blanco'tar ana, baita Mexiko'tar Pillipa, japonar Paul Miki josulauna ta iru mutiko; etzuten eskatu bide guzian une bateko atsedetik.

Otsalla'ren 4'ko arratsaldean sartu ziran Sononki'ra. Erri onetako espetxean, ziñopa ayek begirakizun onbidetsuaz zeuzkaten bitartean, Nangasaki'n ari ziran gertatzen urrengo egunean ayek laztanduko zituen gurutzeak.

Aurreko egun baten, ikusirik areriuak nolako laguntza baitutzen zioten ziñopa gaxo ayeri Taliñame Pantzezka eta Sakexiro Kepa Meako'tar kistarrak, arrapatu ta epaitu zituen eriotzara

Nangasaki'ko agintariak, eta batzaldurik beste lagun maitiekin osatu zuten 26 zenbakia.

Gurutzeak, bada, ta bear ziran aztamakil, zirgillo, lokarri ta abar, ipiñi zituzten Nangasaki'tik 500 kana bide zeguan muru batean.

Urréngo egunean (egubastena, ta Agate ziño-pa deunarena) goizeko amarretan ziñopategi artara zijuazela begiztaturik an ikusten zutena, bizkortu ziran beren aurpegiak ta geitu zitzayen indarrak. Rivadeneira Abak dionez, ekustean gure Martiñ'ek gurutzeak deadarka abestu zuala "*Benedictus Dominus Deus Israel.*"

Eldu ziranean toki ikarako artara, laztandurik bakoitzak bere gurutzea, deun Ander Beldubak bezela. asi ziran gizeralle ayek egun deun ayetan ziñopak lotutzen.

Orduan Kepa Batista ordezkariak ezaguturik makal eta auzbegitua arkitzen zala bere abotsa adierazoteko, agindu zion Martin gizaguren adoretuari oguzi zezala itzaldi bat.

Ala bada, asi zanean itz egiten, ixillune bildulgarri bat egin zan, ikusle ta entzuleak aneika izan arren. Martiñ'en abots alduna zan bakarrik entzuten zana, esan zeikiela, etzegola an bizitiarrik bera baño.

Itzaldi eder onen eskuidatzia arkitu zan Deunaren janzkiko mauka baten barruan, eta bere berreikia utzi zien ondorengoei Deuna txit ondo ezagutu zuten Jon Pobre ta Martzelo Rivadeneira

anak, baña ez degu emen jartzen, egipen txikar au ez geyegi luzatzearren.

Bukatu zuanean, Bergara'tar bioztun au, oinkada sendo ta aurpegi atsegintsu batekin, urreratu zan bera ipiñi bear zuten gurutzea zegoan to-kira: belaunikatuta mun-egin zion, ta beriala borreroak bota zuten gañera; lotu zioten zirgillo burnizkoz lepoa, eskuturrak eta oinbularrak. Zutiturik gurutzeakin batera, gorputz ta arimaz gaizkarbia zan arrek, egur donetsitu artan zintzili zegola, donokirantz begiak jasorik, aurrabestu zuan, bere ziñopa nagusiak asiera emandako "*Benedictus.*"

Borreroak aztamakilla sayatzetik bestaldeko besaburura sartzerakoan, aldendu zan burnia makillagandik, gelditzen zala ura gorputzean sarturik. Atera nai zuan makillarekin batera ta bestera eragiñik barriro sartzeko, baña ikusirik ezin zuala, igo zan Martiñ'ea oñak jartzeko gurutzeak zeuzkan egur zearkara, eta atera zuan eskuaz burni ura, irtetzen zuala orduan zauri aundi artatik odola ixurka. Azkenez, sartu zizkion sayatz bietatik aztamakillak, eraldutzen zutela beste gurutze bat.

Martin doatsua egoera onetan zegola, asi zan abesten "*Laudate Dominum omnes gentes*", eta bukatuaz batera bere gogo edo arima aintzatsua ogetabost lagunenez batzaldurik, egaratu zan Jaun Guzialdunak donokian autatua zeukan jartoki betikora.

Ara emen, Bergara'ko umetxo maiteak, antzartu bear degun ikasbidea; nora begiratu bear degun antzikur edo ispillua: jarraitu bere urrats eta aztarrak, antzartu al-deguneraño Jainko gure Jauna bitarteko jarriaz, geure anai aintzagarria dan Agirre'tar Martin Deuna, Japon'go Lenziño-pa: begira nola daukagun donokitik deadarka Paul Deunak dion lez "Imimitadores mei estote, sicut et ego Christi." "*Izan zaitetze antzarle ta jarraile, ni Josukisto'gan izan nitzan bezela*", eta onela, umetxo maiteak, iritxiko degu bakea ludi onetan, eta bestean donoki betikora; ta au da guztioi biotzetik opa dotzuedana. Zuen aizkide

E. G.^{tar} E.

Erantsikuna: — Japon'go 26 lenziñopaen gorpuzkin edo relikiak banandu ziran kistardiko alde guzietan, eta gure Martin Deunaren burua eraman zuten Goa deitzen zayon Indietako goiturira.

Gurutzea berriz Josu'ren Jeronima Aba'k pantzekatarrak Manila'n zeukaten lekaidetxera.

Eta 1764'garren urtean gure Deunaren esku baten beatz ezur bat, zillarrezko gorpuzkontzi bikain baten jarrita, Bergara'ko jatorria zuan Orbe ta Larreategi'tar Ander, Balenzi'ko Gongotzai eta Azkondari nagusia izandu zanak lortu ta bialdu zuan atsegiñez, ta au da Deun Kepa Erxadonan gurtutzen deguna.

Emen agertzen ditugu orain 26 lenziñopa zoruntzuak jarri zituzten era edo ordena; euren izen gorenduak eta osteango zerzeladak, Jon Pobre lekaide anak egiztutzen digun bezela.

Mendixka tontorrañ erdian:

Kepa Batista, Ordezkaria, San Esteban'goa (Avila'n) 50 urtekoa.

Ordezkarian eskui-aldian:

Agirre'tar Martin, Jauparia, Bergara'koa, 29 urte.

Josu'ren Pillipa, Jaupalgaya, Mexiko'koa, 27 urte.

Garcia'tar Gontzal, lekaidejopua, Bazain'goa, 40 urte.

Blanco'tar Pantzezka, Jauparia, Pereiro'koa, 28 urte.

Samigel'tar Pantzezka, Jaupalgaya, La Parrilla'koa, 52 urte.

Sei abek zeuden japon'dar lenziñopaen erdian, eta beren eskui-aldian urrengo amar onek:

Meako'tar Mati, (beste baten orde) Meako'koa, 38 urtekoa.

Karasuma'tar Lon, Meako'koa, 48 urtekoa.

Meako'tar Bonabentur, lekaidetakua, 26 urtekoa.

Kosaki'tar Toma, Iszekoa, 13 urtekoa.

Jakabir'tar Jokin, Belen'go sukaldaria, Osaka'kua, 46 urtekoa.

Mediko'tar Pantzezka, Osagillea, 55 urtekoa.

Igolo'tar Toma, Sendakaigillea, 42 urtekoa.

Inbia-Kisuja'tar Jon, eulea, 36 urtekoa.

Duizko'tar Gabirel, lekaidetakua, 18 urtekoa.

Sozuki'tar Paul, izkintzaria, 40 urtekoa.

Lekaide deunen ezker aldia.

Taleñame'tar Pantzezka, arotza, Meako'koa, 27 urtekoa.

Lakuxia'tar Kosma, izkintzaria, 38 urtekoa.

Sakexiro'tar Kepa, geznaria, 36 urtekoa.

Kasaki'tar Mikel (Toma mutikoaren aita), 45 urtekoa.

Kika'tar Diego, Josulauna, Osaka'kua, 50 urtekoa.

Miki'tar Paul, Josulaun-aba, 35 urtekoa.

Barike'tar Paul, izkintzaria, 54 urtekoa.

Goto'tar Jon, Josulauna,

Ibarki'tar Koldobika, lekaidetakua, 11 urtekoa.

Nangasaki'tar Andoni, 13 urtekoa.

*Biztelezti onetan agertzen diran itz ezezagun
batzuen azalpena.*

- Aba*—P. Padre.
Abizen—Apellido.
Abots—Voz, acento.
Adibide—Ejemplo, doctrina.
Adimen—Talento, entendimiento, inteligencia.
Adin—Edad.
Adore—Animo, fuerza, valor.
Adoretsu—Brioso, ardiente, fervoroso.
Agerkai—Documento, recibo.
Agerri—Presencia, vista.
Agiriak—Documentación, decreto.
Aintza—Gloria, loor.
Aintzatsu—Glorioso.
Aitabitxi—Padrino de bautizo.
Aitamabitxi—Padrinos.
Aitortu—Confesar, declarar.
Aizerauntzia—Viento borrascoso.
Alai—Alegre, vigoroso, jovial.
Alaigarri—Que produce alegría.
Alaitu—Animarse.
Alatz—Milagro.
Alatzez—Milagrosamente.
Aldun—Potente, poderoso.
Amabitxi—Madrina.
Ana—Fray, hermano en religión.
Andere—Señora.
Aneika—A millares.
Andizuren—Honor, honra.
Antzarle—Imitador.
Antzartu—Imitar.
Antzezta—Imágen.
Antzikur—Espejo.
Apaldasun—Humildad.
Arakotu—Destinar.
Aratu—Enamorar, llegar a.
Arduragetu—Abandonar, descuidar.
Areyo—Enemigo.
Argitsu—Preclaro, lumbreira.
Aritu—Ocuparse.
Arrandi—Ostentación, alarde.
Arrats-bera—Caída de la tarde.
Arrendu—Suplicar, implorar.
Arreta—Atención, cuidado.
Arretatu—Dedicarse, tomar con interés.
Artukitz—Escrúpulo.
Ata—Campo, fuera.
Atako—De fuera.
Atezain—Portero.
Atsedeen—Descanso, respiro.
Atsegindegi—Paraíso, eden.
Atzealde—Popa.

- Aundigo*—Magno, magnitud.
Aundizki—Noble, conspicuo.
Aurgitua—Parida.
Aurka—Contra, oponerse.
Aurkeztu—Presentarse, comparecerse.
Aurtzaroa—Infancia, niñez.
Aurrabestu—Entonar.
Aurregondu—Presenciar.
Ausardi—Valor, ánimo.
Ausarki—Atrevidamente.
Autatu—Elegir, designar, escoger.
Azalpen—Explicación.
Azke—Libre, en salvo, franco.
Azketsi—Perdonar, absolver.
Azkondari—Inquisidor.
Azpegi—Compleción, aspecto.
Aztamakil—Lanza.
Aztarrak—Huellas.
Aztertu—Inquirir, examinar.
- Bagilla*—Junio.
Baitu—Consentir, afirmar, prestar.
Bakaldun—Rey, monarca.
Bakalorde—Embajador.
Bakan—Especial, raro, extraño.
Bakandi—Precioso.
Bakidegetu—Incomunicar.
Barrendutua—Infusa.
Basatxauna—Ermita.
Basetxe—Caserío.
Batzaldu—Reunirse, congregarse.
Batzar—Junta, congregación.
- Bedoikiña*—Novicio.
Bedoitera—Noviciado.
Begiko—Simpático, predilecto.
Begirakizun—Miramiento.
Begirune—Repeto, miramiento.
Belgundari—Misionero.
Belgunde—Misión.
Beretitza—Texto.
Berezitu—Distinguir,] entresacar.
Bergaxotu—Recaer enfermo.
Berondi—Fervor.
Betiraun—Permanecer.
Berreikia—Copia de escrito.
Betetzi—Contemplar, admirar.
Betuztetu—Deliberar.
Biarmin—Penalidad.
Bidaldi—Viaje, caminata.
Biozberatu—Compadecerse.
Bizitegi—Residencia, morada.
Bisitiar—Viviente.
Biztanle—Habitante, morador.
Biztelezti—Biografía.
Burrumba—Zumbido, fragor.
- Dagonilla*—Agosto.
Deun—Santo, santa.
Deuntasun—Santidad.
Deuseztu—Inutilizarse.
Diztiatu—Brillar.
Diztira—Lustre, brillo, resplandor.
Doaikiñak—Dotes.
Doain—Don, gracia.
Doatsu—Beato.
Doibatza—Iglesia.

Doibatz-Deuna—La Iglesia santa.

Donetsi—Santificar.

Donokar—Celestial.

Donoki—Cielo, la gloria.

Doskain—Sacrificio, víctima.

Ederti—Arte.

Egiztapen—Certificado.

Erantsikuna—Apéndice.

Egiztatu—Autorizar, realizar.

Egiztu—Atestiguar.

Egokide—Constante.

Egurazti—Clima.

Ekaitz—Tempestad, borrasca.

Endaitz—Timón.

Epai—Sentencia, veredicto.

Epaitu—Sentenciar, juzgar.

Epaitz—Fallo, sentencia.

Eragotzi—Prohibir, obstruir.

Eraldu—Formar, dar forma.

Eraspen—Exigencia.

Eratu—Destinar, disponer.

Eredu—Modelo, tipo, norma.

Ertxadon—Iglesia parroquial.

Errutsu—Brioso, fogoso, valiente.

Eskañitz—Voto, promesa.

Eskapen—Petición.

Eskar—Gracia, don.

Eskuidatzi—Manuscrito.

Estuki—Rigurosamente.

Etartu—Recibir.

Etxaseme—Herederero.

Eunte (eunki)—Siglo.

Ezbiurkor—Inflexible.

Gainditu—Superar, exceder.

Gaindu—Sobresalir, descollar.

Garaiki—Principalmente.

Garaiz—A tiempo, oportunamente.

Galbidetsu—Peligroso.

Gartsua—Ardiente, inflamado.

Garrazkeri—Rigor, severidad.

Gaxondo—Convaleciente.

Gela—Celda, cuarto.

Gentza—Paz, tranquilidad.

Gentzatsu—Pacífico.

Geznari—Emisario, recaudista.

Gizaguren—Héroe.

Gizeralle—Verdugo, criminal.

Gizkarbi—Virgen, puro.

Gogalpen—Consideración, meditación.

Gogarpen—Contemplación.

Gogartu—Reflexionar, considerar.

Goiargi—Inspiración.

Goigan—Cubierta del buque.

Goitasun—Superioridad.

Goitikoentak—De más alta jerarquía.

Goituri—Ciudad.

Gopatz—Religión.

Gongotzai—Arzobispo.

Goraldu—Alabar, ensalzar.

Gorpuzkontzi—Relicario.

Gotiritz—Pretensión.

Gurari—Deseo.

Ibiltaldi—Viaje, paseo.

Idatzi—Escribir, inscribir.

Idazkai—Escrito, inscripción.

- Idazti*—Libro.
Igaro—Pasar, transcurrir.
Ikaslari—Discípulo, colegial.
Ikaslaun—Condiscípulo.
Ikastaro—Curso, época de estudio.
Ikertu—Visitar.
Ikurdi—Blasón, escudo.
Ikurritz—Epigrafe.
Ikuskatu—Explorar, visitar.
Ilbeltza—Enero.
Ildokatu—Surcar.
Ildura—Mortificación.
Illurren—Moribundo.
Ingi—Papel.
Iragarri—Avisar, anunciar.
Irakasle—Profesor, maestro.
Irakastola—Cátedra, aula.
Irakurlari—Lector.
Iralla—Septiembre.
Irasi—Fundar, crear, instituir.
Iraunkor—Permanente.
Iritxi—Conseguir, alcanzar.
Irozo—Sostener, defender.
Iskindu—Dedicar, consagrarse.
Itxarospen—Esperanza.
Itxaski—Embate, maretazo.
Itxasoratu—Embarcar.
Itxasosti—Navegante, pasajero.
Itxate—Puerto.
Itzaldi—Discurso, sermón.
Itzalditu—Pronunciar, peyorar.
Ixurka—A torrentes, borbotones.
Izaira—Naturaleza.
Izatasun—Existencia.
Izenbetu—Firmar, suscribir.
Izendatu—Nombrar.
Izengoiti—Renombre, sobrenombre.
Izkintzari—Predicador.
Jakidi—Conjunto de ciencias.
Jakintza—Ciencia, sabiduría.
Jaregin—Desprender, desatar.
Jarrabide—Ejemplar, modelo.
Jarraiki—Seguidamente.
Jaupa—Misa.
Jauparia—Sacerdote, presbítero.
Jauparitu—Ordenarse.
Jaupasein—Monaguillo, acólito.
Jaupontzi—Cáliz.
Jaurtari—Gobernador.
Jayaldu—Celebrar, solemnizar.
Jayokunde—Natividad.
Jazarpen—Persecución.
Jazartua—Combatido, perseguido.
Jazopen—Suceso, acontecimiento.
Josulaun—Jesuita.
Juakunde—Viaje, marcha.
Jualtza—Campaneo.
Koisarra—Emperador.
Katariñe—Catalina.
Kepa—Pedro.
Kistarbatza—Cristianismo.
Lagunozte—Comitiva.
Laketu—Permitir, ceder.
Lartsu—Espinoso, áspero.
Latera—Latin.
Lazeri—Molestia.

Lekaidaba—Prior, Superior.
Lekaide—Fraile, religioso.
Lekaidekunde—Profesión.
Lekaidetu—Profesar.
Lekaidetxe—Convento.
Lekaidi—Orden religiosa.
Lekaiki—Novicio.
Lekaipuru—Guardián, Abad.
Lekaiderkaba—Provincial.
Lema—Timón.
Lenziñopa—Protomártir.
Lerrokada—Lista.
Leyatsu—Diligente, celoso.
Lortu—Obtener.
Lurralde—País, región.

Magal—Seno, regazo.
Maiz—Frecuentemente.
Margozki—Pintura.
Menaldu—Delegar, investir.
Menpeko—Subordinado.
Menekio—Servicio, obsequio.
Menperatu—Dominar.
Miesa—Lienzo.
Minge—Mudo.
Mutilki—Varón.
Muru—Cerro.
Mugatuak—Limitados, escasos.

Naimen—Voluntad.
Nekaldua—Castigado.
Nekarazi—Abrumar.
Nekarbide—Penitencia.
Nekatsu—Doloroso.
Nekazka—Indulgencia, perdón.
Nekelarri—Agonía.
Notin—Persona.

Obena—Pecado.
Oartu—Observar, apereibir.

Obeneke—Penitencia.
Odaiertz—Horizonte.
Oguzi—Pronunciar, hablar.
Oiezko—Extraordinario.
Oinkada—Paso.
Onartu—Admitir, aceptar.
Onbide—Virtud.
Onbidekor—Edificante, virtuoso.
Ondi—Altar.
Ondo-irazia—Morigerado.
Onginai—Cariño.
Oñetxe—Casa solariega.
Opa—Desear.
Opari—Ofrenda.
Oparotu—Prodigar, corresponder.
Ontziaurre—Proa.
Ordezkari—Comisario.
Oroimen—Memoria, recuerdo.
Ortze—Cielo, firmamento.
Orrilla—Mayo.
Orroe—Bramido, rugido.
Orrolatsu—Bramador.
Ospe—Prez, fama, nombreadia.
Otarra—Cesto.
Otoi-egin—Orar.
Otoidi—Devocionario.
Otoizmendu—Conjurar.
Otsalla—Febrero.
Otsandea—Fama, celebridad.
Otsein—Criado, sirviente.
Otzandu—Aplacar, amansar.
Ozte—Gentío, concurso de gente.

Pantzezka—Francisco.
Pantzezkar—Franciscano.
Pozerazkida—Felicitación.

- Sendi*—Familia.
Sukaldari—Cocinero.
Sukar—Fiebre, calentura.
Sendakaitz—De difícil curación.
Sumin—Furor, ira.
- Txadon*—Templo.
Txadonatari—Pórtico.
Txadonkizun—Culto religioso.
Txadonzai—Sacristán.
Txaunburu—Párroco.
Txaungela—Sacristía.
Txauno—Capilla.
Txikar—Pequeño, humilde.
- Uargarri*—Notable.
Ugut—Bautismo.
Ugutari—Bautizante.
Ugutatu—Bautizar.
Ugutzingi—Partida bautismal.
Ugiñak—Olas.
Une—Momento, instante.
Urbildu—Allegar.
Urtume—Vástago.
Urtzi—Dios.
Urtzidei—Vocación.
Urtzizti—Teología.
Urrats—Paso.
Urruingarri—Despreciable.
Uskurtz—Religión.
- Uskurtzale*—Religioso.
Ulsune—Vacío, hueco.
Uzkune—Nicho.
- Zaindari*—Custodio, patrono.
Zaindasun—Patrocinio.
Zeagigurta—Idólatra.
Zear—Horizontal.
Ze—Plaza.
Zemuitu—Sufrir, resistir.
Zenbaki—Número.
Zentuzte—Éxtasis.
Zertzelada—Circunstancia, detalle.
Zintzotasun—Fidelidad.
Zintzura—Aptitud.
Ziñaldari—Testigo.
Ziñezko—Verdadero.
Ziñitz-egin—Hacer voto, profesar.
Ziñopa—Mártir.
Ziñopategi—Lugar del martirio.
Zirgillo—Argolla.
Ziur—Seguro, cierto.
Ziurkiro—Con seguridad.
Zorabiatu—Enajenarse.
Zorunduntza—Beatificación.
Zoruntzu—Feliz.
Zorrera—Arrobamiento.
Zuaizgetu—Desarbolar.
Zurrunbillo—Huracán.
-

A
40